NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

# 4. UNITATE DIDAKTIKOA:

# LANBIDEAK

# GAI ZERRENDA



## HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida
- Familientzat Nahiko! aurkezpena

## MATERIALA

- "Hitz debekatuak" jolasa
- "Laukoteak" jolasa
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

tratu txarrak NAHIKO! 3-4 berdintasuna maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

→ Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.

→ Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.

→ Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.

# LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA

## NAHIKO! 3-4 Logoa

Mundu erdia grisa.
Desberdintasunez osatuta.

Mundu erdia berdea.
Berdintasunez osatuta.




**HELBURUA: puntuz puntu, mundu grisa berdeagoa bilakatu.**

## NI ETA MUNDUA, MUNDUA ETA NI:

- Bizitzarako, norbere autonomiarako eta harremanetarako zainketaren eta enpleguaren balioa eta nagusitasuna.

## HELBURUAK:

- Ikasleen garapen osoa sustatu.
- Eredu maskulinoaren unibertsalizazioa aztertu.
- Eredu femeninoaren baloreak azpimarratu.

## EDUKIAK:

- Mundu zabalaren aurkikuntza, ezagutzeko, ulertzeko eta kontatzeko grina.
- Ni eta mundua, mundua eta ni: nola bizi naiz, zer behar dut bizitzeko, norekin bizi naiz, ze harremanak ditut, nola tratatzen ditut…
- Munduaren ezagutza eta interakzio bikoitza
  - Narrazioa, fikzioa
  - Informazioa, albisteak

# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 4. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK |
|---|---|
| 4. Lanbideak | Hitz debekatuak. Laukoteak |
| 5. Komunikabideak | Pertsonaiak. Komunikabideen partxisa |
| 6. Elkarbizitza berdintasunez | Elkarbizitzaren oka berdintasunez jolasa |

## 4.UD, LANBIDEAK:

- Lanbide aukeraketa genero estereotiporik gabe.
- Gaitasun eta nahi pertsonalen arabera.
- "Nik, neska zein mutil, enplegu hori ikasi/izan dezaket".



# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA:

1. Helburu eta edukiak
2. Materialak eta ekintzak
3. “Hitz debekatuak” jolasa
4. “Laukoteak” jolasa



LANBIDEAK

NAHIKO! 3-4

4 UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 7

1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Laugarren unitate didaktikoak, aurrekoan landu genuen Berdintasunaren Okaren alderdi berri bat lantzen du. **Berdintasunaren Okak** gure ikasleentzako aukera berdintasunean oinarritutako ezinbesteko hezkuntza- bidearen proposamena irudikatzen du, bai neskentzako eta bai mutilentzako. Bide hau Giza-eskubideen aplikazioan oinarritzen da, emakume nahiz gizonei, arlo pribatu nahiz publikoan. Helburua neskak nahiz mutilak pertsona autonomoak izatea da eta, norberaren aukera indibidualen arabera, bakoitzak bere burua bizitzaren alor guztietan garatzea. Horretarako, neskek eta mutilek bere sexuari ezarritako genero estereotipoek eragindako muga sozialak ezagutu eta gainditu behar dituzte, bigarren unitate didaktikoan Mutilen Oka (oka urdina) eta Nesken Okaren (oka arrosa) bitartez irudikatu genituenak.

Lehenengo eta bigarren unitateetan, Berdintasunaren Okaren honako bi ezinbesteko eta oinarrizko alor edo alderdiak landu genituen: zainketa (familiarra) eta aniztasuna (indibiduala). Berdintasun eta justizia gehiago egongo den beste mundu bat posible izateko, puntu grisak baino puntu berde gehiago dituen mundu bat lortzeko, beharrezkoa da emakumeek eta gizonek egunerokotasunean bi alderdi hauen ardura hartzea. Laugarren unitate didaktikoak Berdintasunaren Okaren funtsezko beste alderdi bat sakontzen du: lana, lan ordaindua, enplegua.

**Lana, ordaindua edo ez**, emakume eta gizonen jarduerarik beharrezko eta nagusienetakoa da gure gizartean. Indibidualki nahiz kolektiboki behar diren zainketak, zerbitzuak, produktu eta errekurtsoak emateaz gain, pertsona bakoitzaren izaera eta bizimodua eratzen ditu, eta baita pertsona bakoitzak familian eta gizartean dituen rola eta estatusa ere.



LANBIDEAK 4. UNITA

Erdian lanbidearen marrazki adierazgarri bat edo bat
(euskaraz eta gazteleraz), hitz debekatuak dira, jolase

**Jolasaren dinamika** ezaguna da: pertsona baten lanbi
taldeari bere lanbidea zein den azaldu beharko dio, fi
asmatu beharko du eta bi eratan edo bere sexuari ego
bada, "juez").

4 “LAUKOTEAK” JOL

Mahai jolasa talde txikitan jolasteko (talde bakoitza b

**Osagarriak:**
- 60 kartetako lau baraja ezberdin. Barajetako koloreak: urdina, berdea, laranja eta morea. Denak ezberdinak dira baina jolasteko era berdina da. Lau baraja ezberdin daude jolasten den bakoitzean aldatu ahal izateko.

**Baraja bakoitzean lau karta mota daude:** lanbideak,
hauetatik hamabost karta daude: hamabost lanbide e
jolasaren 60 lanbideak biltzen dira. 60 gaitasun labora
Hamabost emakume eta gizonen aurpegi eta izenak e

Gaitasun eta lanbideak era ezberdin askotan lotu dait
beharrezkoak. Soilik gutxi batzuk dira mugatuagoak.
daitezke lanbide eta gaitasun guztiekin.

**Jolasaren dinamika** xinplea da eta "eskoba" karta jola
adierazitako mota bakoitzeko bat (lanbidea, gaitasuna
banatzen zaizkio eta mahai gainean eta erdian lau kar
laukote bat osatu beharko du mahaian dauden hiru k
bat, gaitasun bat, emakume bat eta gizon bat direlarik
behera jarriko ditu. Laukotea ezin badu osatu, dituen
besteen ondoan.

Partaide guztiek hiru kartak erabili dituztenean, beste
baraja osoa agortu arte.

Momenturen batean partaideren batek laukotea osatzea eta mahai gainean kartarik ez uztea lortzen badu, jolasa bukatu egingo da. Hau gertatu ezean, jolasak aurrera jarraituko du karta guztiak erabili eta banatu arte.

# LANA ETA ENPLEGUA




- Lana, ordaindua eta ez ordaindua, emakume eta gizonen jarduera garrantzitsu eta beharrezkoak dira. Garapena, aberastasuna, ongizatea... dakarte, indibidualki nahiz kolektiboki.

- Pertsona bakoitzaren izaera eta bizimodua eratzen du. Bakoitzak duen autoestimua eta familian eta gizartean dituen rola eta estatusa markatzen dute.

## LAN ORDAINDUA, ENPLEGUA

- Enplegua, produkzioaren alor publikoan kokatzen da eta tradizionalki gizonei esleitu zaien alorra da (genero estereotipoen “oka urdina” delakoan dago, ikus 2UD).

- Ordaindu gabeko lana, zainketaren eta etxeko alor pribatuan kokatzen da eta tradizionalki emakumeei esleitu zaien alorra da (genero estereotipoen “oka arrosa” delakoan dago, ikus 2UD).

- Gaur egun, gure gizartean, enplegua emakumeen “oka arrosan” ere badago. Baina, orokorrean, zainketa ez dago gizonen bizitza proiektuetan, “oka urdinean” → bi “oka” ezberdin daude oraindik ere, bizitza proiektu “urdinak” eta “arrosak” (ikus 2UD).

# BEHAKETA ETA AZTERKETA: LANAREN SEXU ARABERAKO BANAKETA

## GURE GIZARTEAN "EMAKUMEEN" ENPLEGUAK ETA "GIZONEN" ENPLEGUAK DAUDE

- Emakumeak zerbitzu alorrean eta pertsonen zainketarekin lotutako esparruetan daude lanean gehien bat.
- Emakumeak gehienak dira lanaldi murritzetan, soldata eta prestigio gutxiagoko enpleguetan. Askotan, kontraturik gabe.
- Lanbide eta enpleguek balioa galtzen dute langile gehienak emakumeak direnean. Gizonek, orokorrean, alde egiten dute halako esparruetatik.
- Lana eta bizitza orekatzeko dauden neurrien erabiltzaileen artean, gehienak, ia denak, emakumeak dira.
- Emakumeen gain dago ordaintzen ez den etxeko lan gehiena.

## HEZKIDETZAREN IKUSPEGIA

Ikasle oro, neska zein mutil, bizitzaren arlo guztietan pertsona osoa eta autonomoa izatea. Beraz, formazioan, lanean eta enpleguan posibilitate, aukera, tratu eta ardura berbera edukitzea, norberaren ahalmenen arabera eta sexuaren araberako inongo baldintzarik gabe.

# AUTONOMIA EKONOMIKOA ETA PERTSONALA LORTZEKO HEZKIDETZA

**Ikasleek bizitzarako nork bere bizi-proiektua eta Giza Eskubideetan oinarritutako giza arteko harremanak esparru guztietan garatu ditzatela lortzea:**

- **Esparru pribatuan eta publikoan.**
- **Zainketaren arloan eta ekoizpenean.**
- **Familian eta gizartean.**
- **Afektuetan eta kudeaketan.**

## LANA HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK

- **Ordaindu gabeko lana, zainketa, kontuan hartu eta balioa ematen dio. Hau bereziki mutilekin landu behar da.**
- **Ordaindutako lana, enplegua, kontuan hartu eta balioa ematen dio, ezinbestekoa eta beharrezkoa baita pertsona ororen autonomiarako. Hau bereziki neskekin landu behar da.**
- **Ikasle neska zein mutilei ordaindutako lanerako eta ordaindu gabeko lanerako prestatzea eta trebatzea proposatzen die, bizitzan ibilbide pertsonala egin dezaten, aukera berdintasunaz eta hautatzeko eta bizitzeko askatasunez, askatasunez norbera izan eta besteekin harremanak izateko.**

# 4. UD-KO HELBURUAK




## IKASLEEK KONTURATU ETA ULER DEZATELA...

- **Gure gizartean, enplegua izatea ez dela aukera bat, beharrezkoa den zerbait baizik. Autonomia ekonomikorako eta pertsonalerako derrigorrezkoa.**
- **Guztiek lanbide bat aukeratu ahal eta behar dutela, edozein lanbide, eta lanbide hori ikasi behar dutela, horretarako gaituz.**
- **Ez direla lanbide mota bat egiteko berezkorekin edo ezinezkorekin "jaio" neska edo mutilak izateagatik. Lanbideetarako erraztasunak eta zailtasunak norberarenak direla eta ez dutela sexuarekin zer ikusirik.**
- **Enplegu eta lanpostu guztiak emakume nahiz gizonentzako egokiak direla eta edozein lanbide mota lortu dezaketela.**
- **Lanbide eta lanpostu bat izateko, lan hori egiteko behar diren ezagutza eta gaitasunak garatzea dela inportanteena.**
- **Enpleguaren berdintasunerako ezinbestekoa dela etxeko lanen, zainketaren lanen, erantzukizun eta lanen banaketa, erantzukidetasuna.**

tratu txarrak NAHIKO! 3-4 berdintasuna
maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



**Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili**

## PAUSOAK

**A) Hasieran: Familiei Nahiko! programaren aurkezpena.**

**B) Asteroko saioetan ikasleekin:**

- **“Hitz debekatuak” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.**
- **“Laukoteak” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.**
- **Ikasleen koadernoa bete, jolasak barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.**

**C) Eskolan landu ondoren:**

- **Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.**
- **Ez da “etxeko-lana”, ez da eskolan “zuzenduko”. Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.**

# FAMILIEI AURKEZPENA



## INFORMAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA ELKARLANA:

- "Nahiko! LH4 familiak" pdf-ko aurkezpen lagungarria erabil daiteke.
- Ikasleen lana azaldu: unitate didaktikoaren edukiak, helburuak eta materialak (jolasak, kantak...).
- Hiruhileko familien koadernoa: helburuak. Lantzeko irizpideak. Ariketa motak eta adibideak. Eskolan egingo den jarraipena.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# ONLINE JOLASAK

## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:

- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...




## JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.




# BUKAERAKO LABURPENA

## ERABILERA:

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
    - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK




## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu...
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu...
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu...
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

# 4.UD-KO JOLASAK







- **"Hitz debekatuak"**
- **"Laukoteak"**

# "HITZ DEBEKATUAK" JOLASA




## GUZTION ERRONKA

- Partida bakoitzean irakasleak gainditzeko erronka aukeratu dezake: zenbat puntu lortu behar diren guztien artean edota zenbat denbora jolastuko den.




## 60 FITXA
## 60 LANBIDE EDO ENPLEGU

- Fitxa bakoitzeko marrazkiek lanbide batekin dute lotura. Lanbide hori identifikatu egin beharko da, ahal den eta pista, hitz, hitz debekatu, gutxienekin.

- Ogibidea soilik marrazkiak ikusita identifikatzen bada, 5 puntu lortuko dira. Hitz bat, pista bat, eskatzen bada, 3 puntu. Hitz debekatu biak eskatzen badira, puntu 1.

# JOLAS ARAUAK 1




## ENPLEGUAK IDENTIFIKATU

- Txanda denean, lehendabizi, soilik irudiak azalduko dira.
- "DEBEKATUTAKO HITZA" botoia klikatuz, hitz debekatuak, pistak, banan banan, azalduko dira.
- Zein ogibidea edo enplegua den identifikatu denean, idatzi enpleguaren izena laukian eta "EBATZI" botoia klikatu.
- Zein enplegu den identifikatu ez denean, "PASATU" botoia klikatu.




**Marrazkiekin bakarrik 5 puntu**




**Hitz batekin 3 puntu**




**Bi hitzekin 1 puntu**

* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta

# JOLAS ARAUAK 2







**Adibidea: "Umezaina" eta ez "Haur zaintzailea"**

**Ogibidearen izena jolasaren txarteletan idatzita dagoen moduan idatzi behar da (ikus txartelen PDFa)**

# "LAUKOTEAK" JOLASA




## 4 KARTA-SORTA

- Karta-sorta urdina, laranja, berdea eta morea.
- Karta-sorta bakoitzak:
  15 emakume,
  15 gizon,
  15 enplegu edo ogibide eta
  15 lanerako gaitasun.
- Karta-sorta bakoitzeko ogibide eta gaitasun kartak desberdinak dira. Guztira, lau karta sortetan, 60 ogibide eta 60 gaitasun ezberdin daude.
- Partida bakoitzean irakasleak zein karta-sortarekin jolastuko den aukeratu dezake.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# JOLAS ARAUAK 1




## LAUKOTEAK OSATU

- Laukite bat = emakume bat + gizon bat + enplegu bat + enplegu horretarako gaitasun bat.

- Laukote bat egiteko, aukeratu “mahaian” dauden 3 karta eta “eskuan” dagoen karta bat, eta “LAUKOTEA” botoia klikatu.

- Ezin bada laukoterik osatu, “eskuko” karta bat aukeratu eta “KARTA BOTA” botoia klikatu.

- Karta-sorta bat baino gehiagorekin jolasten bada, kolore ezberdinetako kartekin alegia, kolore bereko laukoteek, karta-sorta berekoek alegia, puntuazio bikoitza lortuko dute.




* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta

tratu txarrak NAHIKO! 3-4 berdintasuna
maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 2




## Adibidea



# IKASLEEN KOADERNOA

Landutako jolasei buruzko ariketak




## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu. Irudiak gehitu...
- Galderak erantzun. Testuak idatzi...

PDF betegarriak

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak


LANBIDEAK

NAHIKO! 3-4

4 UNITATE DIDAKTIKOA

FAMILIAREN KOADERNOA 12

IZENA


LANBIDEAK 4. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

1 LANBIDEEN ZUHAITZ FAMILIARRA

LABURPENA

| Nere familiako emakumeen lanbideak | Nere familiako gizonen lanbideak |
|---|---|
| | |
| Zergatik aukeratu zituzten lanbideak? | Zergatik aukeratu zituzten lanbideak? |
| | |

Galdetu lanbide horiek pertsonen bizitzan izan zituzten ondorioengatik


LANBIDEAK 4. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

HITZ EGIN ETXEKOEKIN ETA BETE: ZERK BALDINTZATU DEZAKE ZURE LANBIDEA?


LANBIDEAK 4. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

2 ETXEKOEN LANBIDE DESIATUAK

| IZENA | LANBIDEAK | ZERGATIK? | BEHARREZKO GAITASUNAK |
|---|---|---|---|
| Edurne, nere ama. | Kamioilaria. Arkitektoa | Bidaiatzea, tokiak ikustea eta eraikuntza bitxiak gustatzen zaizkio. Soldata ona. | Gidatzea eta mekanika jakitea. Arkitektura ikastea. |

ETA NERETZAT ZER LANBIDE AURREIKUSTEN DUTE PERTSONA HORIEK?

| IZENA | LANBIDEAK | ZERGATIK? | GAITASUNAK |
|---|---|---|---|

**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Hutsuneetan hitzak idatzi. Irudiak gehitu...
- Fitxak osatu. Testuak bukatu. Galderak erantzun...
- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi, zenbaki bera jarri...).

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA





## PAUSOAK:

1. **Familiei koadernoen helburuak eta erabilera azaldu (ikus beheko laukia).**
2. **Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu…**
3. **Koadernoaren ariketak familiekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko erabili.**

## TOPAGUNEA DA, AUKERA BAT, EZ "EGINBEHARRA"

→ **Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.**
→ **Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.**
→ **Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak… BIZITZA partekatzeko aukera.**

→ **Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.**
→ **Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.**
→ **Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.**

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## "ONLINE JARRAIBIDEAK" pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.


NAHIKO! PROGRAMA JARRAIBIDEAK

E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK
E2. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

16. JOLASTEKO ERA AUKERATU
Ikasleen adina eta kopurua, ordenagailu kopurua edo jolasarekin aritzen diren zenbatgarren aldia den kontuan harturik, **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6.atala, 5.orrialdean):

a) Arbela digitala edo proiektorearekin. Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarra badago, garrantzitsua: leiho independienteak zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).
b) Taldeka ordenagailu bakoitzean. Binaka, adibidez.
c) Banaka ordenagailu bakoitzean.
d) Jolas talde eta partida ugari. Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2.taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

**OHARRA**: Jolasak, gehienez 12/14 jokalari jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalari jaso eta bere txanda noiz den adierazteko.

17. IRAKASLE ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK
1- **Hizkuntza** jokalari bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuk hizkuntza batean eta besteak beste batean aritzeko aukera ematen du.

2- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.

3- **Irakaslearen alta** datu hauek betez egiten da:

Kontuan izan guztiek berdin-berdin idatzi beharko duzuela ikastetxearen izena.

10

NON DAGO MATERIALA?
http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/inf

- **Sarrera librea**
Nahiko! programako material eta jolas guztiak Emaku... inolako pasahitzik gabe erabiltzeko.
- **Zikloka antolatuta dago informazioa**
LHko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta hirugarre...
- **Ziklo bakoitzean 6 Unitate Didaktiko**
Unitate Didaktiko baten adibidea.

1

NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO